3HI-155/05-P05
GHI-185/05-P05

TEODORO OLEA ITURREGI EUSKAL HERRIKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO BATZORDEKO IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT, Vitoria-Gasteizen otsailaren 23an Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak egindako 1/2006 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

I. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean ezarritakoaren arabera, Ezkio-Itsasoko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak berrikusteko espedienteak planteatutako lurralde-ereduari buruzko txostena ematea; honakoa, hain zuzen ere:

**A) Lurralde-antolamenduko tresnetara egokitzea**

I.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak

a) Aldeko txostena eman zaio Arauen dokumentuan proposatutako bizitegi-ahalmenari, ahalmen hori (130 etxebizitza), lurraldearen zatiko planak onartu bitartean, LAAetan ezarritako irizpideak aplikatzearen emaitzazkoarekin bat datorrela irizteagatik.

b) Lurzoru urbanizaezinean proposatutako zonakatzea egokitu egin beharko da Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan ezarritako antolamendu-kategorietara, honakoaren arabera:

- Arauetan "babes-zonatzat" zehaztutakoak "babes berezikotzat" zehaztu beharko

TEODORO OLEA ITURREGI, SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

CERTIFICO: Que, en la Sesión 1/2006 de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada en Vitoria-Gasteiz, el día 23 de febrero, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, el siguiente acuerdo:

I. Informar el Modelo Territorial planteado por el expediente de Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de Ezkio-Itsaso, de conformidad con lo establecido en la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco y en la Ley 5/1993, de 16 de julio, de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos, en los siguientes términos:

**A) Adecuación a los Instrumentos de Ordenación Territorial.**

I.- Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

a) Se informa favorablemente la capacidad residencial propuesta en el documento de Normas, por considerarse la misma (130 viviendas) acorde con la que resulta de la aplicación de los criterios establecidos por las D.O.T. hasta la aprobación de los Planes Territoriales Parciales.

b) Deberá adecuarse la zonificación propuesta en el Suelo No Urbanizable a las categorías de ordenación establecidas en las Directrices de Ordenación Territorial de acuerdo a lo siguiente:

- Las zonas definidas en las Normas como "Zonas de Protección", deben definirse

dira. Kategoria horren barruan zenbait azpikategoria barne hartu ahal izango dira, zona horietan bildutako lurraldeek dituzten balio naturakoen, paisaiakoen, faunakoen, geologikoen eta bestelakoen arabera.

como "Especial Protección"; pudiendo incluirse dentro de dicha categoría diversas subcategorías que hagan referencia a los valores naturalísticos, paisajísticos, faunísticos, geológicos u otros que presentan los territorios en ella incluidos.

- Lurrazaleko uren kategoria "Lurrazaleko uren babesa" izendatu behar da, eta "babes bereziko" zonei dagokien kategoriatik bereizita dago.

- La categoría de aguas superficiales debe denominarse "Protección de aguas superficiales", siendo una categoría independiente a la correspondiente a las zonas de "Especial Protección".

- "Jarduera ekonomikoetarako erreserba-zona bereziak" ez du inolako zerikusirik LAAetan ezarritako kategoriekin. Hortaz, horietara egokitu edo ezabatu beharko dira.

- La "Zona de reserva especial para actividades económicas" no guarda ningún tipo de relación con las categorías establecidas en las D.O.T. por lo que deberá adaptarse a estas últimas o suprimirse.

- "Erabilera-helburu zehazturik ez duen landa-zonari" dagokionez, espedienteak LAAen kategoria-sailkapenari jarraitzen badio ere, kategoria hori ohiz kanpokotzat erabili behar da; eta, kota jakin batetik behera kokatutako lurralde osoari, oro har, kategoria hori emateari dagokionean, Arauen proposamena ezin da onartu. Espedienteak antolamendu-kategoria berriro aztertu beharra dauka, eta, dituen balioen arabera, berariazko kategorietako bati atxiki.

- En lo relativo a la "Zona Rural sin vocación de uso definido", si bien el expediente continúa con la categorización de las D.O.T., su utilización debe de ser excepcional, no pudiendo aceptarse la propuesta de las Normas donde en líneas generales todo el territorio situado por debajo de determinada cota se le adjudica dicha categoría. El expediente ha de reconsiderar la categoría de ordenación asimilándola en función de sus valores a alguna de las categorías específicas.

<u>II.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (isurialde kantauriarra)</u>

Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planera (isurialde kantauriarra) egokitu beharko da, honako alderdi hauetan:

HEE 2 Santa Lutzi-Zozabarro eremua
Espedienteak, eremuaren fitxa partikularrean, eraikuntzatik ibai-ibilgura

<u>II.- Plan Territorial Sectorial de ordenación de márgenes de los ríos y arroyos de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Vertiente Cantábrica).</u>

El expediente deberá adecuarse al P.T.S. de Márgenes de Ríos y Arroyos de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Vertiente Cantábrica) en los términos siguientes:

Área A.I.U. 2 Santa Lutzi-Zozabarro.
El expediente deberá incluir en la ficha particular del área la necesidad de que

gutxienez 12,00 metroko atzerapena, eta urbanizaziotik 2,00 metrokoa errespetatu behar dela jaso beharko du; garapen-plangintzak ezarritako zehaztapena izan dadin.

se respete un retiro mínimo al cauce del río de 12,00 metros para la edificación y de 2,00 metros para la urbanización; a efectos de que constituya una determinación impuesta para el planeamiento de desarrollo.

HEE 3 Alegi eta HEE 6 Ojarbide eremuak.Ibai-ibilguarekiko gutxieneko atzerapena 12,00 metrokoa izango da eraikuntza berrietarako.

Áreas A.I.U. 3 Alegi y A.I.U. 6 Ojarbide.
El retiro mínimo al cauce del río deberá ser de 12,00 metros para las nuevas edificaciones.

HEE 7 Anduaga eremua
Ibai-ibilguarekiko gutxieneko atzerapena 10,00 metrokoa izango da eraikuntza berrietarako.

Área A.I.U.7 Anduaga.
El retiro mínimo al cauce del río deberá ser de 10,00 metros para las nuevas edificaciones.

HEE 9 eta 10 eremuak
Eraikuntzatik errekaren ibilgura gutxienez 12,00 metroko atzerapena, eta urbanizaziotik 2,00 metrokoa errespetatu beharko da; garapen-plangintzak ezarritako zehaztapena izan dadin.

Áreas A.I.U. 9 y 10.
Se deberá respetar un retiro mínimo al cauce de la regata de 12,00 metros para la edificación y de 2,00 metros para la urbanización; a efectos de que constituya una determinación impuesta para el planeamiento de desarrollo.

Azkenik, Arauak berrikusteko dokumentuak berriro antolatu nahi dituen eremuetako batzuk zona urpegarrietan daudela kontuan izanda, Eusko Jaurlaritzako Uholdeen Prebentziorako Plan Integralean jasotako datuen arabera; alderdi hori kontuan hartu beharko da haietan egin nahi den edozein esku-hartzetarako, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen zehaztapenak (8. kapitulua, 6.8.8.5 atala), eta Ibaien eta Erreken ertzak Antolatzeko LAParen E.1.4 atalean ezarritakoa betetzearren.

Finalmente, teniendo en cuenta que algunos de los ámbitos objeto de nueva ordenación por parte del documento de Revisión de Normas se encuentran en zonas inundables de acuerdo a los datos recogidos en el Plan Integral de Prevención de Inundaciones del Gobierno Vasco; este aspecto deberá tenerse en cuenta para cualquier intervención que se pretenda realizar en la misma, en cumplimiento de las determinaciones de las Directrices de Ordenación del Territorio (Capítulo 8, apartado 6.8.8.5), así como lo establecido en apartado E.1.4 del P.T.S. de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos.

**B) Jarduera ekonomikoetarako lurzorua**

1. Arauen dokumentuan egindako proposamena bat datorrenez indarrean dauden lurralde-antolamenduko tresnek, hau da, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko LAPak Ezkio-Itsasoko udalerrirako planteatutako kategoria-sailkapenarekin; proposamenari balorazio positiboa eman zaio, jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzoruaren kuantifikazioari dagokionez.

**B) Suelo para Actividades Económicas.**

1. Considerando que la propuesta realizada en el documento de normas es acorde con la categorización planteada para el término municipal de Ezkio-Itsaso por parte de los Instrumentos de Ordenación Territorial vigentes (P.T.S. de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y de Equipamientos Comerciales), se valora favorablemente la propuesta en lo que a cuantificación de suelo destinado a actividades económicas se refiere.

2. Aurkako txostena eman zaio bai Beasain-Zumarraga autobiaren mendebaldean kokatutako HEE 10 industria-eremu berriaren, bai HEE 11 esparruaren kalifikazioari; honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- HEE 10 eremua

a) Lurralde plangintzak jarduera ekonomikoetarako lurzorua garatzeko lehentasunezko esparrutzat jotzen ez dituen eremuak inbaditzen dira. Kalifikazio horrek Beasain-Zumarraga bide-korridoreari ere eragiten dio, eta horrek kontzeptu-aldaketa garrantzitsua dakar lurralde-plangintzan adierazitakoarekiko. LZPan, ingurune fisikoaren atalean, “ingurumena hobetzeko esparrutzat” bereizitako lurrak ere biltzen ditu hirigintza-kalifikazioak, esparru horiek kontserbatu eta hobetzeko balio natural garrantzitsua duten arren.

b) Kalifikazioak Ezkio-Itsason kokatutako lurren hirigintza-inbasioa dakar. Lur horiek aipatutako udalerriak eta Gabiriak komuna duten ibar bati dagozkio, eta zentzu handiagoa du baterako plangintza egitea, erantzun bateratua emateko.

c) Onartezina da esparru hori barne hartzea, alboko industria-lurzoruan dauden jarduerak ezartzeko asmoz (hormigoia fabrikatzeko enpresa); izan ere, proposatutako jarduera ekonomiko berrietarako desegokitzat hartzen baitira. HEE 9 eta HEE 10 eremuen kudeaketak bidea eman behar du jarduera hori, beharbada, aipatutako esparruaren inguruetan kokatzeko, baina aintzat hartutako balio naturalak dituzten espazioak inbaditu gabe betiere.

2. Se informa desfavorablemente la calificación tanto de la zona de la nueva área industrial A.I.U.10 situada al Oeste de la autovía Beasain-Zumarraga, como del ámbito A.I.U.11, en atención a las siguientes consideraciones:

- Área A.I.U.10:

a) Se invaden áreas no consideradas desde el planeamiento territorial como ámbitos de preferente desarrollo para el suelo de actividades económicas, transvasando con esta calificación el corredor viario Beasain-Zumarraga, en lo que supone un cambio conceptual importante con respecto a lo señalado en el planeamiento territorial. Incluso la calificación urbanística se realiza sobre terrenos singularizados por el P.T.P. en el capítulo del Medio Físico como “Ámbitos de Mejora Ambiental”, significando un valor natural importante merecedor de su conservación y mejora.

b) La calificación implica la invasión urbanística de los terrenos recayentes en Ezkio-Itsaso pertenecientes a una vaguada común entre dicho municipio y el de Gabiria, siendo más coherente un planteamiento conjunto en orden a dar una respuesta integrada.

c) La incorporación de este ámbito con el propósito de introducir actividades existentes en el suelo industrial colindante (empresa de fabricación de hormigón) por la consideración de su carácter inadecuado con las nuevas actividades económicas que se proponen, resulta inaceptable. La gestión de las áreas A.I.U. 9 y A.I.U.10 debe de posibilitar la ubicación de tal actividad en este ámbito en una posición quizás periférica, pero nunca invadiendo espacios que presentan valores naturales reconocidos.

2. HEE 11 eremua

Eremu hori hirugarren sektoreko hiri-lurzorutzat kalifikatzeko erabakia Zumarragako plangintzan jasotako Z1.2 Bustintza-Salsamendi eremuaren alboan egoteagatik hartu dela ulertu behar da, bi eremuak aldi berean bideratzekoak baitira. Zumarragako Arau Subsidiarioen espedienteari buruzko azterketan balorazio negatiboa eman zitzaion azken eremu horri, lurralde-plangintzan jasotako lehentasunezko hirigintza-garapeneko esparruetatik at dagoelako, eta dauden baliabide naturalei eragiten dielako. Horrek antzeko balorazioa egitera darama.

2. Área A.I.U.11.

La calificación como Suelo Urbano Terciario cabe entenderla por su contigüidad con el área Z1.2 Bustintza-Salsamendi previsto en el planeamiento de Zumarraga, de tramitación simultánea cuya valoración desfavorable en el análisis del expediente de Normas Subsidiarias de Zumarraga por ser la misma ajena a los ámbitos de preferente desarrollo urbanístico previstos en el planeamiento territorial, así como por su afección a los recursos naturales existente, induce a similar valoración.

**C) Uren Zuzendaritza**

Behin betiko onarpena emateko, Uren Zuzendaritzak 2006ko otsailaren 9an emandako txostenean bildutako eskakizunak bete behar dira. Txosten hori ziurtagiri honen eranskin gisa gaineratu da.

**C) Dirección de Aguas.**

Condicionar la aprobación definitiva al cumplimiento de los requisitos contenidos en el informe emitido por la Dirección de Aguas de 9 de febrero de 2006, que se acompaña como anexo a la presente certificación.

**D) Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritza**

Oro har, landetxe eta abeltzaintzako ustiategi intentsiboak eraikitzeko irizpideak zehaztean (80. artikulua), lizentziak lortzeko baimenak arautzean (3. 4.2. epigrafea) eta AASSetako edozein araudi-zerrenda jasotzean, abeltzaintzako ustiategi instalatu berriei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako 141/2004 Dekretuaren I. eranskinean bildutako baldintza eta arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak nahitaez betetzeko eskakizuna barne hartu beharko da, dekretu horren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**D) Dirección de Desarrollo Rural y Litoral.**

Deberá incluirse con caracter general en la definicición de criterios de construcción para granjas y explotaciones ganaderas intensivas (Art. 80) y en la regulación del Procedimiento para la obtención de licencias (Ep. 3. 4.2.), así como en cualquier relación de normativa que recojan las NNSS, el requisito necesario, con respecto a las explotaciones ganaderas de nueva instalación, de cumplimiento de las condiciones y normas técncias, higienico-sanitarias y medioambientales contenidas en el Anexo I del Decreto 141/2004 de Gobierno Vasco, conforme a lo establecido por su artículo 4.

II. Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea, Uren Zuzendaritzak, Kultura Ondarearenak, eta Landaren eta Itsasertzaren Garapenekoak emandako txostenak, ziurtagiri honen I., II. eta III. eranskin gisa gaineratzen direnak."

II. Remitir a la Diputación Foral de Gipuzkoa los informes emitidos por las Direcciones de Aguas, Patrimonio Cultural Vasco, y Desarrollo Rural y Litoral que se acompañan como anexos I, II y III a la presente certificación."

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación

eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2006ko martxoaren 3an.

del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 3 de marzo de 2006.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO

Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordea · PLENOA ·

Sin.: Teodoro Olea Iturregi.: Fdo.